



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

## BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK IPINTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

### I. KAPITULUA *XEDAPEN OROKORRAK*

#### 1. artikulua Xedea

Ordenantza honen xedea hau da : bide publikoan terrazak, mahaitxoak eta batzuen eta besteen instalazio osagarriak (eguzkitakoak, erlaitzak, toldoak, alboetako babesak, eta abar, esaterako) ipini ahal izateko araudi tekniko eta juridikoa ematea.

Aurreko paragrafoan aipatutakoari jarraituz, terraza eta mahaitxotzat ulertu behar da : Udalak ostalaritzaren alorreko -hala nola tabernak, jatetxeak, kafetegiak eta antzekoak- jarduera baten osagarri diren mahaiak, aulkiak eta behin behineko instalazio finko zein mugikorak. Nolanahi ere, irekitzeko eta jarduerarako baimena duten pertsona titular fisikoei zein juridikoei emango zaie baimena.

#### 2. artikulua. Eremua

Ordenantza hau erabilera publikoko udalerriko espazio guztietarako (kaleak, espazio libreak, berdeguneak etab.) izango da aplikagarri, titularitate publikoa edo pribatua izan. Erabilera publikokoa izatearen baldintza egitate-egoerak berak eta indarrean dagoen planeamenduko zehaztapenak aplikatzeak zehaztuko du.

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, araudi hau ez zaie aplikatu ez udalaren administrazio-emakida baten babesean, ez eta noizbehinkako ospakizunetan eta herriko jai-ekitaldietan, dagokion Udal Agintaritzak ezarritako egutegi eta baldintzapean egiten diren jarduera nagusien instalazio osagarriei.

#### 3. artikulua. Lizentzia aldeaz aurretik eduki beharra

Titulartasun publiko nahiz pribatuko espazio publiko-  
etako instalazio horiek erabilera komun eta bereziko kategoria juridikoa dute, eta kasu bakoitzean erabilpen horretarako aldeaz aurretik lortutako udal lizentzia edukitzea beharrezkoa izango da. Lizentzia hori ordenantza honetan oinarrituz emango da.

## ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN EN LA VÍA PÚBLICA DE TERRAZAS Y VELADORES

### CAPÍTULO I *DISPOSICIONES GENERALES*

#### Artículo 1. Objeto

El objeto de la presente Ordenanza es establecer el régimen técnico y jurídico de la instalación sobre la vía pública de terrazas, veladores e instalaciones complementarias de unos y otros tales como parasoles, pescantes, toldos, protecciones laterales, etc.

A los efectos de lo señalado en el párrafo anterior, se entienden como terrazas y veladores el conjunto de mesas, sillas e instalaciones provisionales fijos o móviles que sirven de complemento temporal a un actividad legalizada del ramo de hostelería tales como bares, restaurantes, cafeterías y similares, siendo otorgada a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de apertura y actividad.

#### Artículo 2. Ámbito

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) del municipio que sean de uso público, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, esta normativa no será aplicable a las instalaciones complementarias de actividades principales desarrolladas al amparo de una concesión administrativa municipal o de las ejercidas con motivo de celebraciones ocasionales y de actos festivos populares, con sujeción al calendario y requisitos establecidos por la Autoridad Municipal competente.

#### Artículo 3. Necesidad de obtención de licencia previa

Las citadas instalaciones en espacios públicos, tanto de titularidad pública como privada, tiene la categoría jurídica de uso común especial y requieren para su ejercicio, en cada caso, licencia municipal previa que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.



#### 4. artikulua. Baimenaren baldintzak

1. Baimena emana dagoela kontsideratzen da jabeago eskubidea ezik, eta hirugarrenaren kalte gabe, ezin izango delarik bere ekintzen jardueran onuradunak izan ditzakeen erantzukizun zibil edo penaletatik salbuesteko edo horiek gutxitzeko eskaerarik egin. Hala balegokio, lizentziak ez du titularra beste baimen batzuk eskuratu ahal izatetik salbuesten.
2. Lizentziaren dokumentuan instalazio eta elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira, hartu beharreko azalera, baimenaren iraupena, eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko berezitasunak.
3. Lizentziak prekario izaera izango du beti eta, trafikoko, urbanizazioko edo interes orokorreko beste edozein gorabeherak hala eskatzen duenean, udal agintariek baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko agindu ahal izango dute, modu arrazoituan; horrenbestez, partikularrak agindutakoa bere kontura egin beharko du, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
4. Instalazioaren ondorioz bide publikoan egindako kalte guztiak konpondu beharko ditu lizentziaren titularrak.
5. Bide publikoa okupatzeko lizentziak, Udalak interes orokorrekozat jotzen dituen kultur ekintzak edo bestelakoak garatzearen kaltetan gabe emango dira.  
Terraza batek bide publikoa okupatzea interes orokorreko ekintza bat garatzearekin gatazkan sartuko balitz, terraza jaso egin beharko da aipatu ekintza amaitu gabe, lizentziaren jabeak ez duelarik izango inolako indemnitazio jasotzeko eskubiderik.  
Udala bere aldetik, ahal duen neurrian, horrelako egoerak ekiditen saiatuko da. Gertatu, gertatuko balira, terrazari kokapen alternatibo bat aurkitzen saiatuko da hura ohiko tokian kokatu ezingo den denborarako.

#### 5. artikulua. Baimena ukatzeko arrazoiak

Udal organo eskudunak terrazak eta elementu osagarriak jartzeko baimena uka dezake interes publikoaren mesedetan, terrazaren trazatua eta kokapena direla eta, inguruko etxebizitzak 2'5 metro baino gorago edo 3 metro baino urrunago ez badaude,

#### Artículo 4. Condiciones de la licencia

1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el beneficiario en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.
2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, periodo de vigencia de la autorización, y demás particularidades que se estimen necesarias.
3. La licencia tendrá siempre carácter de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas, cuando circunstancias del tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.
4. El titular de la licencia queda obligado a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública, como consecuencia de la instalación.
5. Las licencias de ocupación de la vía pública se darán sin perjuicio del desarrollo de actividades culturales o de otro tipo consideradas de interés general por el Ayuntamiento.  
En caso de que la ocupación de la vía pública por una terraza entre en conflicto con el desarrollo de una actividad de interés general, la terraza se recogerá hasta la finalización de la citada actividad sin dar derecho al propietario de la licencia a ningún tipo de indemnización.  
El Ayuntamiento por su parte procurará, en la medida de lo posible, evitar estas situaciones y en caso de que se produzcan intentará buscar una ubicación alternativa a la terraza en el tiempo en que ésta no pueda ser colocada en su ubicación habitual.

#### Artículo 5. Motivos de denegación de la licencia

El órgano municipal competente podrá no autorizar la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares, en aquellos casos que así lo exija el interés público, por razón del trazado, situación, existencia de vi-



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

bide-segurtasun arrazoiengatik, herri lanak nahiz establezimendu dentsitate handia daudelako edo beste arrazoi batzuegatik. Uka dezake baita ere, ingurunearekiko desegokia edo bat ez datorrena baldin bada, edo hiri paisaiaren irakurketa zuzena eragozten badu.

## 6. artikulua. Lizentzia eskaera

Baimena eskatu nahi duenak artikuluko honetan adierazitako dokumentuez gain, Alkateari zuzendutako eskaera Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko du honako hauek azalduta :

- Eskatzailearen izen-abizenak.
- NAN, telefono eta helbidearen datu pertsonalak.
- Jardueraren izena eta kokapena.
- Jardueraren beste zenbait argibide (Jarduera Ekonomikoen Gaineko zerga, I.F.K. etab.).

Eskaerarekin batera, interesatuak ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko ditu :

- Jarduerarako udal lizentzia (instalazio-lizentzia eta/edo irekitzeko lizentzia).
- Hala eskatuko balitz, ondoko lokaletako titularraren baimena.
- Kokapena zehazten duen plano edo krokisa gutxienez 1:100 eskalan, ondo zehaztuz instalazioak okupatuko duen azalera, mahaitxoak eta aulkien banaketa, alboko babesak, etab. Era berean, fatxadaren luzera eta geldituko diren espazio libreen zabalera aipatu behar dira, eta inguruan izan daitekeen edozein elementu adierazi (trafiko seinaleak, zuhaitzak, bankuak, zutabeak, hiri-altzariak, etab.) eta kaltetuak gerta litezkeen udal zerbitzuak (ura, saneamendua, gasa, etab.).

Titulartasuna aldatu edo berritu nahi bada, edo oro har, baimenaren edukian aldaketa handirik sorrarazten ez duen eragiketa bat egin nahi bada, interesdunaren betebeharrak bakarrik izango da aldaketa horren berri formalki ematea, Udalean aurkeztu beharreko eskaera baten bidez.

Baimenaren edukian aldaketa garrantzitsua eragiten duten gainontzeko kasuetan, interesduna behartuta egongo da artikuluko honetan xedatutakoaren arabera baimena eskatzeko.

viendas a una altura inferior a 2,5 metros o a una distancia inferior a 3 metros, seguridad viaria, obras públicas, densidad de establecimientos o cualesquiera otras circunstancias, así como que resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

## Artículo 6. Solicitud de licencia

El/la interesado/a deberá presentar en el Registro General del Ayuntamiento, acompañado de los documentos señalados en este artículo, la correspondiente solicitud dirigida al/ a la Sr./a Alcalde/sa, en la que hará constar:


- Nombre y apellidos del/de la solicitante.
- Datos personales relativos a domicilio, teléfono y D.N.I.
- Nombre y emplazamiento de la actividad.
- Datos de la actividad (Impuesto de Actividades Económicas, C.I.F., etc.)

Junto con la solicitud el/la interesado/a deberá presentar los siguientes documentos:

- Acreditación de disponer de autorización municipal para el ejercicio de la actividad (licencia de instalación y/o apertura).
- Acreditación de que se dispone de la autorización de los locales adyacentes en los supuestos en los que ésta se requiera.
- Plano de emplazamiento o croquis a escala no inferior a 1:100, con detalle suficiente de la superficie ocupada por la instalación, así como la distribución de mesas y sillas, protecciones laterales, etc. Asimismo deberá indicarse la longitud de la fachada y del ancho de los espacios libres resultantes, reflejando, además, la existencia de cualquier elemento urbano (señales de tráfico, árboles, bancos, columnas, mobiliario urbano, etc.) y posibles afecciones a servicios municipales (aguas, saneamiento, gas, etc.)

En los supuestos en los que se pretenda un cambio de titularidad, renovación y en general todas aquellas circunstancias que no conlleven alteraciones sustanciales en el contenido de la licencia, el interesado sólo vendrá obligado a comunicar formalmente dicho cambio, mediante instancia a presentar en el Ayuntamiento.

En el resto de supuestos que conlleven un cambio sustancial del contenido de la licencia, el interesado vendrá obligado a solicitar licencia conforme a lo dispuesto en el presente artículo.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

## 7. artikulua. Erabakia

Ordenantza honek zehazten dituen baldintzak bete ondoren eta dagozkion aurretiko txostenak lortu ondoren, udal organo eskudunak ebazpena emango du, horretarako legez finkatutako epeetan.

Lizentziaren dokumentuan instalazio eta elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira, hartuko den azalera, mahaitxoan eta aulkien kopurua, baimenaren iraupena, eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko berezitasunak.

Eskaera egin denetik hilabete igarotzen bada Udalaren erantzunik gabe, ezetsizat joko da eta eskatzailak, interesatuta balego, eskaera berri bat egin beharko luke.

Jabari publikoa okupatzeagatiko tasak edo Ordenantza urratzeagatiko isunak ez ordaintzea, baimena ukatzeko arrazoi izan daitezke.

## 8. artikulua. Lizentziaren iraupena

Emandako lizentziek honako iraupenak izan ditzakete :

- Urte batekoa.
- Uda-denboraldia : Maiatzaren 1etik urriaren 30era.
- Herriko festak.

Indarraldia bukatutakoan, lizentziaren edo, hala balegokio, dagokion establezimenduen titularrak, instalazio guztia kendu eta bide publikoa lehen zegoen egoeran utzi beharko du.

Lizentzien iraunaldia eskatutako denboraldi bakoitza bukatzen denean automatikoki galduko da.

## 9. artikulua. Tasa eta fidantza

Lizentziaren titularrak dagokion tasa ordaindu beharko du indarreko Zerga Ordenantza betez.

Ordenantza honetan ezarritako betekizunak beteko diren berme gisa, lizentziaren titularrak 300'00 euroko fidantza utzi beharko du diruz, tasa-ordainketarekin batera. Utzitako fidantzak aurretiko baja-eskakizunarekin itzuliko dira eta betekizun guztiak bete izana egiaztatu eta gero.

## Artículo 7. Resolución

Formulada la petición en los términos exigidos en la presente Ordenanza, y previo informes pertinentes, se resolverá por el órgano municipal competente en los plazos legalmente establecidos.

En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, período de vigencia de la misma y demás particularidades que se estimen necesarias.

Si transcurrido un mes el Ayuntamiento no hubiera contestado a la solicitud se entenderá desestimada la misma debiendo el solicitante, en el caso de estar interesado, presentar nueva solicitud.

El impago por el/la solicitante de la tasa correspondiente a la ocupación del dominio público o de las multas impuestas con arreglo a la presente Ordenanza podrá motivar la denegación de la licencia.

## Artículo 8. Vigencia de la licencia

Las licencias otorgadas podrán tener las siguientes duraciones:

- Anual.
- Temporada de verano: Del 1 de mayo al 30 de octubre.
- Fiestas patronales.


Transcurrido el periodo de vigencia, el titular de la licencia, y en su caso, el del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior.

Las licencias pierden automáticamente vigencia al finalizar cada periodo solicitado.

## Artículo 9. Tasa y fianza

La persona titular de la licencia deberá abonar la tasa correspondiente conforme a la Ordenanza fiscal vigente.

En garantía del cumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Ordenanza, la persona titular de la licencia deberá depositar, junto con el pago de la tasa, una fianza en metálico por importe de 300,00 euros. Las fianzas depositadas se devolverán previa solicitud de baja y una vez comprobado el cumplimiento de todas las obligaciones.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

## II. KAPITULUA *JARDUERA*

### 10. artikulua. Baldintzak eta instalazioa jasotzea.

Mahai-aulkiek okupatzen duten eremua egun osoa garbitasun eta higiene egoera egokian edukitzeko betebeharra du baimenaren titularrak. Aldian behin, erratza pasa eta garbiketa egin beharko du.

Horretaz gain, eguneko jarduna bukatzean altzari-elementuak establezimenduaren barrura sartu beharko ditu, eta mahaiek hartzen duten eremua garbitasun egoera ezin hobean utzi.

Aparteko kasuetan, eta elementuak lehen adierazitako moduan jasotzeko ezintasun fisikoa justifikatuz gero, okupazio ordutegia amaitzean altzariak bide publikoan piltzeko baimena eman ahalgo da. Altzarien pileketa segurtasun neurriak hartuz eta elementuak ongi eutsiz egingo da, eta haren ikusizko inpaktua ahalik eta gehien murriztuko da. Fatxadaren ondoko gunea libre utziko da, salbuespeneko kasuetan ezik, horiek, dagokion baimenean jasoko direlarik.

Eguzkitakoak, mahaiak, aulkiak edo alboetako nahiz goiko babesak jarri ahal izateko beharrezkoa bada bide publikoan ainguraketak egitea, horiek kentzean bide publikotik ez direla aterako ziurtatzeko moduan jarriko dira. Baimendutako instalazioak bide publikoan hartzen duen tokian edota hurbileko hiri-osagaietan kalteak edo akatsak eragin dituela ikusten bada, udal-administrazioak kalte horien diruzenbaterako osoa eskatuko du.

Era berean, ostalaritzako jardueraren titularrak jarduera uzten badu, bide publikoa jatorrizko egoeran jarri beharko du, non eta ez duen egiaztatzen lokaletan ostalaritza jarduera jarraitu behar duela eta horretarako ainguraketak erabili behar dituela.

### 11. artikulua. Molestiak

Debekatuta dago auzokoen lasaitasuna galaraztea zarata, oihu edo bestelako eragozpenen bidez, batez ere 22:00etatik aurrera. Nolanahi ere, kanpora emititzen duen edozein elementu ipintzea debekatua egongo da.

### 12. artikulua. Zerbitzuak

Mahaitxoetan eta aulkietan establezimenduak bere kategoriaren arabera baimenduta dituen edari eta

## CAPITULO II *ACTIVIDAD*

### Artículo 10. Condiciones y retirada de la instalación.

El titular de la autorización tiene la obligación de mantener, durante todo el día, el espacio ocupado en las debidas condiciones de limpieza e higiene, efectuando tareas de barrido y limpiezas periódicas. Así mismo, deberá retirar los elementos del mobiliario al término de cada jornada, al interior del establecimiento, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

En casos excepcionales y previa justificación de la imposibilidad física de la recogida, se permitirá a través de la correspondiente autorización, a apilar los elementos de mobiliario tras el horario de ocupación en la vía pública, con las debidas medidas de seguridad y sujeción y reduciendo al máximo la zona ocupada así como su impacto visual. Se dejará libre la zona próxima a la fachada, salvo los casos excepcionales que serán, asimismo recogidos en la correspondiente autorización.

En los casos en que para la colocación de sombrillas, mesas, sillas, o protecciones tanto laterales como superiores sea preciso realizar anclajes en la vía pública, éstos se deberán colocar de tal forma que tras su retirada, estos no sobresalgan de la misma. Para el supuesto de que se observen daños o desperfectos en la vía pública ocupada o en elementos urbanos cercanos producidos por la instalación autorizada, la administración municipal exigirá el importe total de los referidos daños.

De la misma forma, en caso de que el titular de la actividad de hostelería cese en la misma, deberá reponer la vía pública a su estado original, salvo que acredite que en el local se va a seguir desarrollando una actividad de hostelería que puede llevar aparejada la utilización de los anclajes.

### Artículo 11. Molestias

Queda prohibido turbar el reposo del vecindario con ruidos, gritos u otras molestias, con especial atención a partir de las 22:00 horas. En todo caso estará prohibida la instalación de cualquier elemento de emisión sonora al exterior.

### Artículo 12. Servicios

En las mesas y sillas sólo se podrán servir consumiciones y artículos para los que el establecimiento



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

artikuluak bakarrik zerbitzatu ahal izango dira, betiere Sailkatutako Jardueraren Araudian eta indarrean dauden gainontzeko arauetan xedatutakoa jarraituz.

### III. KAPITULUA **BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATE-BALDINTZAK**

#### **13. artikulua. Ipini daitezkeen gehieneko mahaitxo eta aulkiak**

Baimendutako mahai eta aulki kopurua jarriko da, ez gehiago. Establezimendu bakoitzeko, gehienez ere 16 mahai baimenduko dira eta gehienez 4 aulki mahai bakoitzeko. Edozein aldaketa egiteko, eskaera berria egin eta dagokion baimena lortu beharko da.

Mahaiak borobilak edo karratuak izango dira eta mahai bakoitzak ezingo du 1'50 m<sup>2</sup> baino gehiago okupatu.

#### **14. artikulua. Publizitatea**

Eguzkitakoetan eta estalkietan soilik jarri ahal izango da merkataritza-publizitatea, eta oso txikia izan beharko du, ikuspegiaren gaineko eragin negatiboa saihesteko.

Drogamenpeketasun arloko aurrerazaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen 15.1 artikulua xedatutakoaren arabera, debekatuta egongo da kanpoko iragarkietan alkohol-dun edarien eta tabakoaren iragarkiak egitea. Kanpoko iragarkitzat hartuko dira erabilera orokorrekoak diren guneeetan edo leku irekietan dauden pertsonen arreta irudiaren edo soinuaren bidez erakartzeko gai diren iragarkiak.

#### **15. artikulua. Altzarien diseinua**

- Hiri-altzariei (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak etab.) nolabaiteko harmonia eta estetika ematearren, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:
  - Materialak : Batez ere aluminioa erabiliko da eta beste zenbait materialekin jarri al izango da, hala nola, egur tratatua, biniloa, bambua, zumea etab. Mahai eta aulkien egitura ezingo da inoiz plastikozkoa izan.
  - Koloreak : Tonu neutroak erabiliko dira (zuria, krema, metalizatua...) eta ezingo dira kolore deigarriak eta/edo bizi-biziak erabili.

esté autorizado de acuerdo con su categoría, el Reglamento de Actividades Clasificadas y demás normativa vigente.

### CAPÍTULO III **CONDICIONES TÉCNICAS Y DE PUBLICIDAD**

#### **Artículo 13. Número máximo de mesas y sillas a instalar**

Se colocará exclusivamente el número de mesas y sillas autorizado. El número de mesas por establecimiento autorizado será como máximo de 16, que conllevará la autorización para la instalación de 4 sillas máximo por mesa. Para cualquier cambio, deberá presentar nueva solicitud y obtener la correspondiente autorización.

Las mesas serán redondas o cuadradas y no podrán exceder de 1,50 m<sup>2</sup>.

#### **Artículo 14. Publicidad**

Únicamente podrá colocarse publicidad comercial en las sombrillas y toldos y deberá ser de tamaño muy reducido, a fin de evitar un impacto visual negativo.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 15.1 de la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre promoción, asistencia e inserción en materia de drogodependencias, queda prohibida la publicidad exterior de bebidas alcohólicas y tabaco, entendiéndose por tal aquella publicidad susceptible de atraer, mediante la imagen o el sonido, la atención de las personas que permanezcan o discurran por ámbitos de utilización general o en lugares abiertos.

#### **Artículo 15. Diseño del mobiliario**

- Para dar cierta armonía y estética al mobiliario urbano (mesas, sillas, sombrillas, etc.) éste deberá tener las siguientes características:
  - Material: Se utilizará predominantemente el aluminio, pudiendo combinarse con otros materiales como madera tratada, vinilo, bambú, mimbre, etc. En ningún caso la estructura de mesas y sillas podrá ser de plástico.
  - Colores: Se deberán utilizar los tonos neutros (blancos, cremas, metalizados...), sin que puedan utilizarse colores llamativos y/o chillones.



Horri dagokionean, interesatuak zalantzaren bat badu kolore edo material zehatz bat indarrean dagoen arautegiaren arabera egokia den jakiteko, udal zerbitzu teknikoetara jotzeko aukera izango du, baimen-eskaera egin aurretik zalantza horiek argitzearren.

2. Berariaz debekatzen dira azaldutako materialak edo baldintzak betetzen ez dituzten publizitate-dun terraza estandarrek.
3. Altzariak oro har zaintze-egoera onean mantendu beharko dira beti.
4. Elementu mugikorrek (mahaiak, aulkiak, etab.) erabiltzerakoan soinua sortzea eragotziko duten babesak edukiko dute.
5. Eguzkitakoak : Mahai bakoitzerako banakakoak ez dira lurrian ainguratuko, beren pisuz eutsi beharko direlarik. Mahai bat baino gehiago esaltzen duten eguzkitako eta olanak jartzea eta horiek lurrera ainguratzea, egituraren pisua kalkulatzeko arduratuko den teknikari baten zuzendaritzapean egin beharko da, eta Udalaren onarpenarekin.

#### 16. artikulua. Alboetako babesak

1. Instalazioak hartzen duen azalera mugatu edo zedarritu egingo dute esparrua inguratzen duten alboetako babesak. Horien bidez oztopoak antzeman ahal izango dituzte ikusmen-urritasuna duten pertsonak.
2. Alboetako babes horiek mugikorrek eta desmunta daitezkeenak izan beharko dute, opakoak edo gardenak lurretik zenbatuta metro bateraino, eta gainontzean gardenak izango dira, hala xedatzen baitu ordenantza honetako 15. artikulua materialentzat aurreikusitako ezaugarri teknikoetan.
3. Babesak ezingo dira dagokien instalazioetarako baimendutakoa baino zabalagoak izan, eta horien altuera metro 1 eta 1'5 metro artekoa izango da.
4. Babes horiek egonkorrek eta jarraiak izan beharko dute, ertz zorrotzik gabe, ez autoirristakorrek, eta ez iraultzeko erresistentziarekin.
5. Ohiz kanpo, eta Udal zerbitzu Teknikoek oniritzia ematen badute, alboetako eta pareko babes modura lorontziak erabili ahal izango dira.

A estos efectos y en caso de que el/la interesado/a tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color, podrá dirigirse a los servicios técnicos municipales a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de autorización.

2. Se prohíben expresamente las terrazas estándar de publicidad que incumplan las condiciones o materiales descritos anteriormente.
3. El mobiliario en general se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.
4. Los elementos móviles (mesas, sillas, etc.) dispondrán de protección que corte la generación de ruido en su manejo.
5. Sombrillas: Las individuales para cada mesa no podrán ir ancladas al suelo, debiendo sujetarse por su propio peso. Para sombrillas y toldos que cubran más de una mesa, el sistema de fijación al suelo debe contar con la dirección de un técnico que se responsabilice del cálculo de la estructura y con la aprobación del Ayuntamiento.

#### Artículo 16. Protecciones laterales

1. El área ocupada por la instalación podrá quedar delimitada por protecciones que acoten el recinto y que permitan identificar el obstáculo a las personas con deficiencias visuales.
2. Estas protecciones laterales deberán ser móviles y desmontables, opacas o transparentes en una superficie de un metro, medido desde el suelo, y el resto transparentes, de conformidad con las características técnicas establecidas para los materiales previstos en el artículo 15 de esta ordenanza.
3. No podrán rebasar el ancho autorizado de la instalación correspondiente y su altura no será inferior a 1 metro ni superior a 1,5 metros.
4. Estas protecciones deberán ser estables y continuas, que no tengan cantos vivos, no autodeslizantes y con resistencia al vuelco.
5. Eventualmente y, con el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales, se podrán utilizar jardineras a modo de protección lateral y frontal.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

#### IV. KAPITULUA *INSTALAZIOAK IBILGAILUEN TRAFIKOA DABILEN KALEETAN*

##### 17. artikulua. Ibilgailuen trafikoko kaleak

Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetan jabari publikoak mahaiak eta mahaitxoak jartzeko baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira :

- Espaloian gutxienez 2'00 metroko tartea geldituko da libre oinezkoan joan-etorrirako eta etxebizitza nahiz lokalen sarbiderako. Dena den, oinezkoentzat utzi beharreko pasabide librea zabaldu ahal izango da, udalaren erabaki arrazoitu baten bitartez, trafiko edo oinezkoen joan-etorri handiak hori eskatzen duenean.
- Mahaiek eta aulkiek ez dute inolaz ere inguruko finketarako sarbidea eta oinezkoen joan-etorria galarazi edo eragotziko, eta ezin izango dira jarri oinezkoen pasabideen parean, ez eta jende asko biltzen den tokietako larrialdi-irteeren parean.
- Instalazioa, alboko babesak barne, luzetara gehienez hartuko duen espazioa ez da jarduera nagusia egiten den establezimenduaren fatxadaren luzera baino handiagoa izango. Udalak aldamenekoei kalterik eragiten ez zaiela ulertuko balu eta establezimenduaren alboetakoak baimena eman gero, instalazioa luzeagoa jarri ahal izango da.
- Instalazioak, ahal dela, luzetara jarriko dira, espaloi-ertzaren ondoan, eta espaloitik gutxienez 30 zentimetrotara.
- Gorabehera zehatzak direla medio eta alde zurretik udal txosten arrazoitua eginda, mahaitxoak establezimenduaren fatxada ondoan jartzea komeni bada, kokaleku hori baimendu ahal izango da, lizentziari buruzko txostena egiteko eskumena duen teknikariak proposatzen dituen diseinu eta baldintzak betez.

#### V. KAPITULUA *INSTALAZIOAK OINEZKOEN ESPARRUETAN, PLAZETAN ETA TOKI LIBRE BEREZKETAN*

##### 18. artikulua. Oinezkoentzako kaleetako instalazioak

Oinezkoen eremu edo kaleak nagusiki jendarteko topagunea izango dira.

#### CAPÍTULO IV *INSTALACIONES EN ACERAS DE CALLES CON CIRCULACIÓN RODADA*

##### Artículo 17. Calles con circulación rodada


En las calles de tráfico rodado podrá autorizarse la ocupación del dominio público con mesas y veladores en las siguientes condiciones:

- La anchura mínima de la acera que quede libre será de 2'00 metros para el tránsito peatonal y acceso a viviendas y locales. En todo caso, el paso libre peatonal podrá ser ampliado, a juicio municipal razonado cuando lo requieran la intensidad de tráfico o viandantes.
- Las mesas y sillas se colocarán de manera que no impidan o dificulten en ningún momento el libre acceso a las fincas colindantes así como la fluidez de los peatones, no pudiendo colocarse ni frente a pasos de peatones ni salidas de emergencia de locales de pública concurrencia.
- El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidas protecciones laterales, no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo cuando el Ayuntamiento considere que no se ocasionan perjuicios a los colindantes y cuente con autorización por escrito de los colindantes de ésta.
- Con carácter preferente se dispondrán longitudinalmente junto al borde de la acera y separadas de este al menos 30 cm.
- Cuando previo informe municipal razonado, y por circunstancias concretas, fuera conveniente la ubicación del velador junto a la fachada del establecimiento, se podrá autorizar esta disposición de acuerdo con el diseño y condiciones que proponga el técnico competente para informar sobre la concesión de la licencia.

#### CAPÍTULO V *INSTALACIONES EN ÁREAS PEATONALES, PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES*

##### Artículo 18. Instalaciones en calles peatonales

En las zonas o calles peatonales predominará su carácter de espacio de encuentro público.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

Aintzat hartuko dira baimena emateko garaian ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorri beharrak.

Instalazioa luzetara gehienez hartuko duen espazioa ez da jarduera nagusia egiten den establezimendua-ren fatxadaren luzera baino handiagoa izango, baldin eta alboetakoen idatzizko baimena ez badago, inguruko etxebizitza eta lokaletara pasatzeko tokia bermatu beharko delarik.

Oinezkoen eremuetan mahaiak eta mahaitxoak ezingo dira jarri ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen ordutegian.

Nolanahi ere, 2'00 metroko oinezkoen igarotze eta etxebizitza eta lokaletarako pasabidea bermatuko da.

Eguneko edozein unean baimendutako edota larritako ibilgailu batek oinezkoen gunetik pasatzeko beharra izango balu eta mahaiak edo mahaitxoak pasoa oztopatuko baliote, titularrak berehala kendu beharko ditu ibilgailuak beharrezko maniobra egin dezan.

Salbuespenez baino ezingo dira arkupe edo ataripe gisako pasabide estaliak okupatu. Udal zerbitzuek zehaztuko dute zein kasutan baimenduko diren instalazioak. Horrelakoetan, 2'00 metroko pasabidea bermatu behar da.

### **19. artikulua. Instalazioak plazetan eta toki libre berezietan**

1. Terrazak eta mahaitxoak plaza eta espazio libre berezietan jartzeko eskaerak kasuan kasuko berezitasunaren arabera erabakiko dira. Nolanahi ere, kontuan izan beharko dira zehaztutako hauek :
  - a) Lorategi eremuak, jolas-esparruak eta atsendenlekuak errespetatuko dira. Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko, ezta etxebizitza eta lokaletarako pasabidea ere.
  - b) Eremu horietan bide publikoa erabiltzeko lizentzia eskatu ahal izango duten bakarrak establezimendua-ren fatxadaren aurrealdeak eremu horietara ematen duten 1. artikuluan zehaztutako titularrak izango dira.
  - c) Etenik gabeko luzera plaza edo espazio librearen duenaren erdia izango da gehienez ere.
  - d) Gehienezko zabalera plaza edo espazio librearen duenaren herena izango da gehienez ere.
  - e) Debekatua dago pasabide gisa zehaztutako tokietan jartzea.

Se tendrán en cuenta a la hora de otorgar las licencias las necesidades de tránsito tanto rodado como peatonal.

El desarrollo longitudinal máximo de la instalación no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo autorización por escrito de los colindantes de éste, debiendo garantizar el paso a las viviendas y locales colindantes.

En las zonas peatonales las mesas y veladores no se podrán instalar durante el horario en que esté permitida la circulación de vehículos.


En todos los casos, se deberá garantizar un paso de 2'00 metros para el tránsito peatonal y acceso a viviendas y locales.

Si a cualquier hora del día un vehículo autorizado o de urgencias tuviera necesidad de circular por la zona peatonal y las mesas o veladores se lo impidieran o dificultaran, el titular de éstas deberá proceder a la retirada inmediata de las mismas a fin de facilitar la maniobra del vehículo.

Excepcionalmente, se podrán ocupar zonas de paso cubiertas como soportales, porches, etc. Los servicios municipales determinarán en qué casos se podrán autorizar las instalaciones. En tales casos, se deberá garantizar un paso de 2'00 metros.

### **Artículo 19. Instalaciones en plazas y espacios libres singulares**

1. Las solicitudes para la instalación de terrazas y veladores en las plazas y espacios libres singulares, se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:
  - a) Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juego y descanso existentes. No se impedirá la fluidez del paso de los viandantes, así como el acceso a las viviendas y locales existentes.
  - b) Únicamente podrán solicitar licencia de ocupación de la vía pública en estos espacios los titulares de los locales definidos en el art. 1 cuyos frentes de fachada den a los mismos.
  - c) La longitud máxima ininterrumpida no podrá sobrepasar la mitad de la plaza o espacio libre.
  - d) La anchura máxima de la instalación no podrá sobrepasar un tercio de la plaza o espacio libre.
  - e) Queda prohibida su instalación en las zonas señaladas como paso.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

- f) Erdiko eremu bat erabiltzeko eskabide bat baino gehiago balego, establezimendu ezberdinek hartuko duten azalera proportzioaren arabera banatuko da, hau da, establezimendu horiek publikorako esleituta duten eremuaren arabera.
2. Okupazioak ez du inolaz ere gaudituko Udalak baimendutako okupazio-azalera. Aldamenekoen baimen idatzia izan beharko du horien fatxada hartu nahi badu, aulkiei eta mahaiei dagokionean soilik. Debekatuta dago kanpoko barrak jartzea, makinak, kioskoak, ainguraketa finkoe-kin ipinitako toldoak, eta abar.
3. Lizentzia lortu ondoren, titularra udal zerbitzu teknikoekin harremanetan jarriko da, eta horiek bertan zehaztuko dute baimendutako gehie- nezko okupazio-azalera.

## VI. KAPITULUA ORDUTEGIAK

### 20. artikulua. Jarduteko ordutegia

Eremua erabili ahal izateko ordutegia honakoa izango da :

Ipini :  
Goizeko 9:30etatik aurrera, garbiketa-lanak oztopatu gabe.

Kendu :  
Ekainaren 15etik irailaren 15era.  
Igandetik ostegunera : 24:00ak arte.  
Ostiral, larunbat eta jai-bezperak : 01:00ak arte.

Urteko gainontzeko egunak :  
Igandetik ostegunera : 23:00ak arte.  
Ostiral, larunbat eta jai-bezperak : 24:00ak arte.

Plaza itxietan edo etxebizitzan forjatua plazaren forjatuarekiko altuera baxuan egoteagatik ke- xak dauden lekuetan, edo beste edozein kausa dela eta, bizilagunei eragozpenak eragiten zaizkiela egiazta- tzen den lekuetan, elementuak erretiratzeko ordua mugatu egingo da 21:00ak arte igandetik ostegu- nera, eta 22:30ak arte ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperatan.

- f) En caso de concurrencia de diversas solici- tudes de ocupación sobre un mismo espacio central, la superficie a ocupar por los distin- tos establecimientos, se distribuirá propor- cionalmente al espacio que dichos locales tengan asignado al público.

2. La ocupación no podrá en ningún caso sobre- pasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento, deberá contar con la autorización por escrito de los colindantes cuando pretenda ocupar la fachada de los mismos, solo se referirá a sillas y mesas, estando prohibida la instala- ción de barras exteriores, maquinas, quioscos, toldos con anclaje fijo, etc
3. Obtenida la licencia el/la titular de la misma se pondrá en contacto con los servicios técnicos municipales, que delimitarán sobre el lugar, la superficie máxima de ocupación autorizada.

## CAPITULO VI HORARIOS

### Artículo 20. Horario de funcionamiento

El horario de ocupación será el siguiente:

Instalación:  
Desde las 9:30 sin que se entorpezcan las labores de limpieza.

Retirada:  
Del 15 de junio al 15 de septiembre:  
De domingo a jueves: 24:00 horas.  
Viernes, sábados y vísperas de festivos: 01:00 horas.

Resto del año:  
De domingo a jueves: 23:00 horas.  
Viernes, sábados y vísperas de festivos: 24:00 horas.

En aquellos lugares como plazas cerradas o casos en los que se produjeran quejas por situarse el forja- do inferior de las viviendas a una cota muy baja con respecto al forjado de la plaza, así como en aquellos casos en que se constate que, por cualquier otro motivo se producen molestias al vecindario, se podrá limitar el horario hasta las 21:00 horas de domingo a jueves y hasta las 22:30 horas los viernes, sábados y vísperas de festivos.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

Oinezkoentzako gune edo kaleetan terrazak eta mahaitxoak ipintzeko ordutegia ez da hasiko zama-lanetarako ordutegia amaitu arte, aipatutako ordutegia bukatu aurretik jarri ahal izango direlarik, beti ere aintzat izanik zama-lana horiek bermaturik gelditu behar dutela.

Herriko jaiak edota beste edozein egun berezi de-nean, dagokion udal organoak, salbuespen gisa, mahaitxoak eta gainerakoak kentzeko ordutegi mal-guagoa baimendu ahal izango du, herri osorako edo eremu jakin baterako.

## VII. KAPITULUA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

### 21. artikulua. Udalaren lizentziarik gabeko instalazioak

Lizentziarik gabe jarritako mahaitxoak eta terrazak kautela-moduan eta berehala kendu ahal izango ditu udal-agintaritzak, eta horretarako izendatutako tokian gorde, dagozkion isunak ezartzearen kaltetan gabe.

Lizentziak babesten duen epea bukatu ondoren terraza eta mahaitxoak jarrita egoteak, ondorio haue-tarako, udal baimenik gabe egotera pasatzea eka-rriko du.

### 22. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea

Lizentziaren baldintzak edo Ordenantza honetan jasotako aginduak betetzen ez badira isuna jarriko da, hirigintzari eta toki-araubideari buruz indarrean dagoen legedian agertzen den moduan eta aurrez dagokion espedienteaz izapidetu ondoren; horrez gain, lizentzia baliogabetu eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea gerta daiteke, Udalaren erreke-rimendua bete ezean.

### 23. artikulua. Arau haustekak

Ordenantza honen ondorioetarako arau haustekak arin eta larrietan sailkatzen dira.

Hauek dira arau hauste arinak :

- Agindutako ordutegiaz kanpo terrazak eta mahaitxoak jartzea.

En las áreas o calles peatonales el horario de la instalación no se iniciará en tanto no haya finalizado el horario de carga y descarga, sin perjuicio de que se pueda autorizar la instalación con anterioridad a la finalización del horario de carga y descarga, siempre y cuando queden garantizadas dichas operaciones.

El órgano municipal competente podrá autorizar excepcionalmente un horario de retirada más flexible, bien para todo el municipio o bien para una determinada zona del mismo, durante las fiestas patronales y en otras fechas de significación especial.

## CAPITULO VII RÉGIMEN SANCIONADOR

### Artículo 21. Instalaciones sin licencia municipal

La autoridad municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, los veladores y terrazas instalados sin licencia en la vía pública, y proceder a su depósito en lugar designado a ello, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

La permanencia de terrazas y veladores, tras la finalización del periodo de vigencia de la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal.

### Artículo 22. Incumplimiento de las condiciones de la licencia


El incumplimiento de las condiciones de la licencia o de los preceptos recogidos en la presente Ordenanza dará lugar a la imposición de una sanción económica en los términos de la legislación vigente sobre urbanismo y régimen local y previa instrucción del correspondiente expediente, sin perjuicio de la revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en los casos de desobediencia al requerimiento municipal.

### Artículo 23. Régimen de infracciones

A los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves y graves.

Tendrán la consideración de infracciones leves:

- Colocación de terrazas y veladores fuera del horario establecido.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

- b) Baimendutako kopurua baino elementu (mahai, aulki edo beste elementu osagarriak) gehiago jartzea.
- c) Baimendutako kokapenez kanpo mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak ipintzea.
- d) Okupazio-espazioa behar bezalako apaintasun, segurtasun eta garbitasun baldintzatan ez edukitzea, terraza dagoen bitartean nahiz egunero hura jasotzean.
- e) Ordenantza honetan zehaztutako arauak haustea.
- f) Bizilagunei molestiak sortzea. Bizilagunei molestiak sortzen dizkieten edo ordena publikoa aldatzen duten jarduerak baimentzea terrazan.
- g) Ordenantza honetan zehaztutako ordutegia ez betetzea.
- h) Ordenantza honetan jasotako araudiaren beste edozein ez betetze egitea, arau-hauste hori larria ez bada.

Hauek dira arau hauste larriak :

- a) Mahaitxoak, terrazak eta beste elementu osagarri batzuk lizentziarik gabe jartzea.
- b) Ordenantza honen menpeko elementuak ipintzea, lizentzian zehaztutako baldintza teknikoak errespetatu gabe.
- c) Musika-tresnak edo bozgorailuak jartzea.
- d) Lizentziaren edozein betebeharrak, debeku edo baldintza ez betetzea, behar bezala egiaztatu ondoren bizilagun edo oinezkoen interesari, segurtasun eta/edo osasunari kalte larriak eragin dizkiola.
- e) Denboraldian hiru arau-hauste arin pilatuz gero behin betiko zigorraren ebazpena jasoko du.

#### 24. artikulua. Zehapen-arabidea

Ordenantza honen arau-hausteei ondorengo eskalaren arabera isunak jasoko dituzte :

- a) Arau-hauste arinak : 300'00 Euro bitarteko isuna, arau-haustearen larritasunaren arabera, eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada.
- b) Arau-hauste larriak : 301'00tik 900'00 Euro bitarteko isuna, arau-haustearen larritasunaren arabera, eta/edo Ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko establezimendua gaitasun gabe uztea, gehienez ere 2 urtez, gertakariaren larritasunaren arabera.

- b) Colocación de elementos (mesas, sillas u otros elementos auxiliares) excediendo el número de elementos autorizado.
- c) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.
- d) No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza, tanto durante el disfrute de la terraza como al recoger ésta cada día.
- e) El incumplimiento de la normativa establecida en la presente ordenanza.
- f) Causar molestias al vecindario. Permitir actividades en la terraza que molesten a los vecinos o alteren el orden público.
- g) El incumplimiento del horario establecido en la presente Ordenanza.
- h) Cualquier otra infracción en lo dispuesto en esta Ordenanza que no se encuentre expresamente tipificada como infracción grave.


Tendrán la consideración de infracciones graves:

- a) La instalación de veladores, terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia.
- b) La colocación de elementos sujetos a la presente ordenanza sin respetar las condiciones técnicas establecidas en la licencia.
- c) Instalar aparatos de música o altavoces.
- d) Todo incumplimiento de obligaciones, prohibiciones o condiciones de la licencia que, debidamente acreditadas, causen perjuicios graves al interés, seguridad y/o salubridad de los vecinos o transeúntes.
- e) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante la temporada.

#### Artículo 24. Régimen de sanciones

Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

- a) Infracciones leves con multa de hasta 300,00 Euros que se graduarán en función de la gravedad de la infracción y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.
- b) Infracciones graves con multa de 301,00 Euros a 900,00 Euros que se graduarán en función de la gravedad de la infracción y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente ordenanza, durante el plazo de 2 años, a tenor de la gravedad de los hechos.



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

Gerora instalazioa legeztatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udal aginduak betetzeari uko egin ez bazaio, zehapena zigor ekonomiko soilaz izatera murriztu daiteke.

## 25. artikulua. Ordezko betearazpena

Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko agintzen badu Udalak, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu horretarako ezarritako epean, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio ordezko betearazpenaz, eta horretarako izendatutako tokian utzi. Jabetzak hortik eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion gastuak ordainduta, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Bateratuaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikulua.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehenez ere sei hilabetez egongo dira biltegian. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga ahal izango ditu.

## VIII. KAPITULUA *AZKEN XEDAPENA*

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen den egunetik aurrera hama-bost lanegun igarotzean izango du eragina.

Berariaz udal agintaria ahalmentzen da lizentziak emateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, beti ere administrazio prozedura erkideari buruzko araudian jasotako arauen arabera.

Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

## Artículo 25. Ejecución subsidiaria

Cuando el responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de elementos instalados en la vía pública, en los supuestos previstos en la presente Ordenanza, la Administración podrá proceder subsidiariamente al levantamiento de los mismos, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de las tasas y los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, Ley de Procedimiento Administrativo Común.

Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente artículo, no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte del interesado se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión.

## CAPITULO VIII *DISPOSICIÓN FINAL*


La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto íntegro de la misma en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

Villabonan. 2011ko uztailaren 18an

ALKATEAK,

Izpta.: Galder Azkue Eizmendi



VILLABONAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA  
(Gipuzkoa)

**Diligentzia :**  
**Agerian uzteko bide publikoan terrazak eta mahaitxoak ipintzeko udal ordenantza arautzaile hau Villabonako Udalbatzak 2011ko uztailaren 28an egin zuen osoko bilkuran onartu zena dela.**

**Diligencia :**  
Para hacer constar que la precedente Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores, es la aprobada por el Pleno del Ayuntamiento en sesión de 28 de julio de 2011.

**Villabonan, 2011ko uztailaren 29an**

**IDAZKARIAK,**

**Izpta.: Juan Manuel Ruiz Gastañares**